

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ZEINEN BIDEZ EZ BAITA ONARTZEN [REDACTED] JAUNAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA, BIZKAIKO ATLETISMO FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN IZENDAPENARI BURUZKOA.**

---

**Espedientea: 19/2016 zenbakia:**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** [REDACTED] jaunak, Bizkaiko Atletismo Federazioaren Batzar Orokorreko kideak, errekurtsu bat aurkeztu du kirol-kluben eta -taldeen estamentuen izenean, 2016ko irailaren 29an, 19/2016 zenbakiarekin erregistratua. Honela dio hitzez hitz:

*<<... Bidezabal Atletismo Klubeko presidentea eta Bizkaiko Atletismo Federazioko Batzarreko kide izanik, aipatutako federazioaren ezohiko batzarrera joan nintzen apirilaren 19an. Batzarrerako deia hauteskunde-prozesua hasteko egin zen. Gai-zerrendaren lehen puntuan (erantsita dago deialdia), hauteskunde-batzordearen hautapena aipatzen zen.*

*Pertsonalki boluntario aurkeztu nintzen hauteskunde-batzordeko kide izateko, eta hala izendatu ninduten. Une hartan, ez zen zozketarik egin titularrak izango ziren beste bi kiderentzat, nirekin hauteskunde-batzordea osatuko zutenentzat, eta, horrez gain, hauteskunde-batzordea osatuko zuten beste hiru postu erresebatuak ere ez ziren zozketatu.*

*Ziurta daitekeenez, batzarraren aktak (erantsita dago akta) hauteskunde-batzordean bete gabeko postuak hautatzeko modu bat adierazten du, ezohiko batzarrean (erantsita dago akta) onartutako hauteskunde-araudian lekurik ez duena. Izan ere, araudiaren 6.5 artikuluan, Batzar Orokorraren barnean zozketa*

*publiko bat egiteko beharraz hitz egiten da argi eta garbi, eta prozedura hori, hain zuzen, ez zen aplikatu.*

*Presidentearen eta kargua utzitako Zuzendaritza Batzordearen arbitrariotasun horrek eragin du, alde batetik, hauteskunde-batzordeko beste bi kide izendatzea, batzarraren inolako kontrolik gabe; eta, beste aldetik, ni, Batzar Orokorrak onartutako kide bakarra izanda, lehen bilera batean eta [REDACTED] jaunekin, adin kontuengatik hurrenez hurren presidente eta hauteskunde-batzordeko idazkari direnekin, bilduta egotea; Zuzendaritza Batzordeko ordezkariarik egon gabe.*

*Batzar Orokorren kontrolarekin hauteskunde-batzordeko kideak izendatzea da kide horiek hautatzeko modu legala, bai eta inpartzialak izateko modu bakarra ere.*

**ESKATZEN DUT:**

*Adierazitako guztiagatik eta Ezohiko Batzarrak onartutako hauteskunde-araudi aplikagarriaren (erantsita dago akta) eta Bizkaiko Atletismo Federazioaren Estatutuen 64. artikulua araber, eskatzen dut Kirol Justiziako Euskal Batzordeak baliogabe dezan Hauteskunde Batzordearen hautapena, baita Hauteskunde Batzorde horren kontrolpean egin den hauteskunde prozesu guztia...>>.*

**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurso horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 16.4. artikuluan oinarrituta, eta espedientea eskatu zion Bizkaiko Atletismo Federazioari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten eginbideak aurkezteko aukera emanaz.

**HIRUGARRENA.-** Bizkaiko Atletismo Federazioak bidalitako espedientea jaso da, baita honako alegazio hauek adierazten dituen idazkia ere:

<< 1. *Hauteskunde-batzordea hautatzeko, hauteskunde guztietan erabilitako sistema erabili da. Sistema hori federazio honetan ez ezik, Euskadiko Atletismo Federazioan eta Espainiako Atletismoko Errege Federazioan ere erabili izan da. Hori, hain zuzen, batzarkide gehienek hauteskunde-batzordeko kide izateko garaian mesfidantza adierazten dutelako da. Horregatik, boluntarioak behar dira, zozketa egiteko beharrik izan gabe.*

*Aurreko hauteskundeetan ere gertatu izan da hori. Hauteskunde horietan oraingo aurkaratzailea Bizkaiko Atletismo Federazioko presidentea zen, 2008-2012 denboraldian; eta ez hark ezta batzordeko beste edozein kidek ere ez zuten aurkaratzerik aurkeztu.*

2. *Hauteskunde-araudiak adierazten du hauteskunde-batzordera boluntario gisa hautagai aurkeztu nahi duten pertsonak federazio honetako idazkaritzan aurkeztu behar dutela eskaera batzarra ospatu baino zortzi egun lehenago. Hori, hain zuzen, aurkaratzaileak ez zuen egin, batzarraren egunean aurkeztu baitzen boluntarioki, eta ez zitzaion inolako trabarik eta oztoporik jarri. Era berean, hauteskunde-batzordeko beste bi kideek hurrengo egunean haien onespena eman zuten.*

*Hauteskunde-batzordeko kideetako bat (presidentea) batzordeko kide izan da azken zortzi urteetan.*

3. *Aurkaratzailea hauteskunde-batzordeko bileretara joan da, baita hauteskunde-deialdira eta hauteskunde-egutegia prestatzera ere, beti ere batzordearen osaeran eragozpenik adierazi gabe. Aktak sinatu ditu nahiz eta hainbatetan bere sinadura ez agertu. Edonola ere, eztabaidatutakoaren inguruan ados zegoen. Bileretako batean boto partikular bat ere eman du, akta sinatzea ukatuz. Baina boto partikularra sinatu zuen aurkaratze horri ez zegokion gai batean, beti ere, bileretan hauteskunde-batzordearen osaeran eta hautatze-sisteman eragozpenik adierazi gabe.*

4. *Ez da inolako aurkaratzerik burutu ezarritako epearen barruan edo epez kanpo. Aurkaratze hori federaziora heldu da hauteskunde-prozesu guztia*

*amaituta zegoenean eta aurkeztutako hautagai bakarra presidente izendatuta zegoenean... >>.*

**LAUGARRENA.-** Bizkaiko Atletismo Federazioak aurkeztutako idazkiaren 3. puntuko alegazioei dagokienez, federazio hark bidalitako espedientean agerikoa da errekurtsioa aurkeztu duen pertsonaren sinadura, hauteskunde-batzordeko kide gisa, hauteskunde-batzordeko aktetan (2016ko ekainaren 15ekoa, 2016ko uztailaren 14koa eta 2016ko irailaren 14koa). Ez da behaketarik edo boto partikularrik ageri.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Ekainaren 11ko Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legearen 25.1.j) artikulua eta Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuaren 14.2.j) artikulua xedatzen dutenaren arabera, euskal federazioek eta lurralde-federazioek, besteak beste, federazioko hauteskunde-prozesuen kontrolaren izaera administratiboko funtzio publikoa betetzen dute. Aipatutako 16/2006 Dekretuaren 14.4 artikuluan xedatzen da funtzio publiko hori betetzeko egiten diren egintzei errekurtsioa jar dakieke Lurralde Historikoei edo Eusko Jaurlaritzari dagokion organoaren aurrean, eta horren ebazpenak administrazio-bidea agortuko du.

**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ekainaren 11ko Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legeak 138. artikuluan, eta aipatutako batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak 3. artikuluan emandako eskumenak ditu.

Kirol-federazioen hauteskunderi dagokienez, aipatutako 14/1998 Legearen 138.b) artikuluari eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluari jarraituz, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumena da *<<Kirol-federazioetako hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzea eta ebaztea>>.*

Horren arabera, eta hauteskunde-prozesuaren fase ezberdinei dagokienez, hauteskunde-batzordea hautatzeari dagokion fasea ez dago Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenen artean. Hori dela eta, hauteskunde-batzordeko partaideen hautapena, Bizkaiko Atletismo Federazioaren Batzar Orokorren bidez eginga, ez dago Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenen artean. Horregatik, ez da egokia jaunak planteatutako errekurtsoren inguruan ezer adieraztea.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

### **EBAZTEN DU**

Ez onartzea [REDACTED] jaunak 2016ko irailaren 29an aurkeztutako errekurtsoa, Bizkaiko Atletismo Federazioaren hauteskunde-batzordearen izendapenari buruzkoa.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a.

José Luis Aguirre Arratibel

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA**